

# EKITEN 2017

## Landa Ingurunearen Garapenari buruzko Ideia eta Proiektuen IX. Lehiaketa.

Ekintzailtzako EKITEN programan parte hartu duten enpresa-proiekturik onenei sariak banatu zaizkie. Sari banaketa Arrasaten izan zen, 2017ko ekainak 23an, goizeko 11:00etan. Ekitaldia Goi Eskola Politeknikoan izan zen eta bertan MUko ordezkariak, Gazte Enpresa eta Kimu Berriko ordezkariak eta Landaola (Gipuzkoako Landa Garapenerako Elkarteen Federazioa) ordezkatzan Debemen eta Deba Garaia Landa Garapenerako ordezkariak izan ziren.

Aurtengo edizioan 35 proiektu aurkeztu dira Mondragon Unibertsitateko EKITEN lehiaketara eta 114 ikaslek hartu dute parte. Lehiaketa Mondragon Unibertsitatearen Ekiten sustapenerako eta ekintzailtzarako programaren barruan kokatzen da, eta babesleak artean Landaola Federazioa aurkitzen da. Lehiaketak ikasleengan ekintzailtzaren kultura txertatzea du helburu.

Landa-Ingurunearen Garapenari buruzko kategorian **Oneiñ** ekimena izan da onena, hau da, lehenengo saria eskuratu duena. Hileko kuota finkoa ordainduz produktuak bezeroari egokitutako "dieta" baten oinarrituta bertako eta sasoiko produktuekin astero jasoko du egindako erosketa adostutako gune batean takila bidez. Bigarren saria **Dawada** proiektuarentzako izan da eta hirugarrena **Lurbot** proiektuarentzako.

Proiekturik bideragarrienak eta enplegua eta aberastasuna sortzeko gaitasun handiagoa duten proiektuak saritzen dira. Horiek dira "Ekiten" programaren epaimahaiak kontuan hartu dituen premisak 2016-2017 edizioko irabazleak aukeratzeko. Aurkeztutako proiektuak ebaluatzeko kontuan hartu diren irizpideak hauek izan dira: ideiak aberastasuna eta enplegua sortzeko duen gaitasuna, proposamenaren bideragarritasuna eta ideiarekin originaltasuna eta izaera berritzailea. Kategoria bakoitzeko talde irabazleak 1.000 euro eskuratu ditu, eta bigarren eta hirugarren sailkatuek, berriz, 500na euro.

EKITEN lehiaketak proiektuen ebaluazio prozesuan, aurtengo edizioan ere proiektuak aukeratzeko, publikoak bozka egiteko aukera izan du. Lehenengo fasea gaitasun ondoren, bideo bat grabatu dute proiektuak ezagutzera emateko. Bideo hauek, MUko YouTubeko kanalean, EKITEN 2017 zerrendan kargatu dira eta facebooken ere bai. Bideo hauek jasotzen dituzten "atsegin dut" guztiak izan dira kontutan publikoaren balorazioa egiteko.

## Landa Ingurunearen Garapenerako Ideien eta Proiektuen IX. Lehiaketa.

### 1.- Saria: ONEIÑ.

Taldea: Itziar Madariaga, Eneritz Arizmendiarieta, Xabier Narbaiza eta Jon Beitia.

### 2.- Saria: DAWADA.

Taldea: Alison Stefania, Marta Castillo eta Rodrigo Orozco.

### 3.- Saria. LurBot.

Iñigo Larrañaga.

